

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Bermeoko Udala**

Txikikizkako merkataritzarako eta ostalaritzarako diru-laguntzak emateko deialdiaren oinarri arautzaileak, baita Bermeon jarduera duten beste zerbitzu batzuentzako ere, COVID-19aren agerpenagatik alarma-egoeraren adierazpenaren ondorioz Bermeon jarduera ekonomikoa berraktibatzeke.

1. Diruz lagundu daitekeena

Deialdiaren oinarri arautzaile hauen xedea zera da: martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuan (COVID-19ak eragindako osasun-krisialdia kudeatzeko) aurreikusitakoaren arabera txikizkako merkataritzan, jendearentzako zabalik dauden lokaletan ematen diren zerbitzuetan eta ostalaritzan etenda geratu diren jardueretako norbere konturako edo autonomoak diren langileentzako premiazko laguntzak adierazteko eta zuzenean emateko araudi erregulatuak ezartzea eta zuzenean emateko prozedura ezartzea.

Laguntza hauen helburua da Bermeon saltokien, zerbitzuen eta ostalaritzaren egonkortasun ekonomikoari eusten laguntzea, eta martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua indarrean jartzeak eragindako lokal eta txikizkako establezimendu jakin batzuen merkataritza-jarduera ezaren ondorioak arintzen laguntzea, behin aldi baterako itxiera-aldia amaitu ondoren, merkataritza-jarduera berriz hasi eta luzaroan mantentzea lortzeko.

2. Emateko era

Laguntza hauek emateko prozedura norgehiagoka izango da.

Oinarri hauetan ezarritako baldintza guztiak betetzen dituzten eskabideei emango zaie laguntza, COVID-19k eragindako osasun krisia kudeatzeko alarma-egoera deklaratzeko duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren 10. artikulua ezartzen duen ixteko derrigortasun irizpideari jarraituz, hari eta deialdi honetan eskuragarri dagoen finantzazioa agortu arte, eta epearen barruan aurkeztu den dataren arabera.

Ematen diren laguntzak esleitzeko emakidan publikotasun-, berdintasun-, lehia- eta objektibotasun-printzipioak hartuko dira kontuan.

Oinarri hauetan ezarritako baldintza guztiak betetzen dituzten eskaerei emango zaie laguntza, ondoren zerrendatzen diren irizpideen arabera eta deialdi honetan eskuragarri dagoen finantzaketa agortu arte.

3. Zenbatekoa eta kopurua

Deialdi honetarako aurreikusitako zenbatekoa 100.000 eurokoa da eta udalaren 2020ko aurrekontuaren kontura izango da.

Onuradunek jaso ahal izango duten diru-laguntzaren gehieneko zenbatekoa 300,00 eurokoa izango da, eta behin eskaera ebatzen denean ordainketa bakarrean ordainduko zaie.

Enpresa bakoitzak establezimendu bakoitzeko eskaera bakarra aurkeztu ahal izango du, betiere oinarri hauetan eskatutako baldintzak betetzen baditu.

Horretarako ipinitako 100.000 euroko aurrekontuko partida ez balitz nahiko izango eskaera guztiei erantzuteko, diru kopuru hau baldintzak betetzen dituzten guztien artean banatuko da bidezko banaketa eginda.

4. Diru-laguntza jaso dezaketen gastuak

Honako hauek hartuko dira laguntza honen xede diren jardueratzat, eta 2020ko martxoaren 14ko alarma aldia hasi eta alarma egoera amaitu eta hurrengo bi hilabeteen barruan egon beharko dute:

- Langile Autonomoen Araubide Berezian edo, hala badagokio, Gizarte Segurantzaren edo nahitaezko mutualitate profesionalean norberaren konturako langile moduan kotizatu izanaren ordainketari dagozkion kuotak.



- Autonomoen edo mikro empresa txiki eta ertainen kasuan, beren kargura langile bat edo gehiago badituzte, enplegatzaileak 2020ko martxoaren 14an atxikita edo lanean egon diren langileei ordaindutako gastuak. Jarduera aldi baterako utzi aurretik, lan arloko legerian araututako bermeak, betebeharrak eta prozedurak bete beharko dira.
- Negozio lokalen errentamendu gastuak, beti ere familia etxebitza baten parte ez badira edo lokalaren errentatzailearekin 2. mailara arteko odolkidetasun edo ahaidetasunik ez badago, eta errentatzaile moduan jarduten duen persona fisiko edo juridikoaren bazkide edo partaide ez bada.
- Egiten ari zen jarduerari zuzenean atxikitako horniduren, makineriaren, instalazioen eta ekipoen mantentze lanen gastuak.
- Ekipamendu informatikoa, teknologikoa eta teknologia berriekin lotutako prestakuntza.
- Kanpoko laguntza aditu ekipoak, instalazioak eta pertsonak desinfektatzeko, kontingentzia egoerari erantzuteko soilik.
- Kanpoko aholkularitza edo laguntza-aditua hauek garatu, definitu eta ezartzearekin lotutakoa: telelanarekin, segurtasun-planekin, kontingentziekin, bateragarritasuneko giza baliabideetako planekin, ekoizpen eta logistika kudeatzeko planekin eta erreferentziako egoerari berehala erantzutearekin lotutako beste plan batzuekin.
- Jardueraren aseguru primei dagozkien gastuak.
- Jardueraren hornitzaileei egindako ordainketa mugaeguneratuak.
- Jarduerari atxikitako beste edozein gastu finko eta errepikakorra.
- Gastu horiek ez dira laguntza honen xede izango, beste administrazio batzuek diruz lagunduko badituzte.

5. Onuradunak

Laguntza hauen onuradun izan daitezke Bermeon dauden ostalaritzako eta txikizkako merkataritzarako establezimenduak eta jendearentzat zabalik dauden lokaletan emandako zerbitzuetako titularrak eta martxoaren 14ko 463/2020 EDko 10. artikulua aldatzen duen martxoaren 17ko 465/2020 EDak dioena betetzeko eta ondorengo luzapenengatik erabat itxi behar izan dutenak (COVID-19k eragindako osasun-krisia kudeatzeko alarma-egoera deklaratzeko duena).

Laguntzen onuradun izateko bete beharreko baldintzak honako hauek dira:

1. Garatzen duten txikizkako merkataritza, zerbitzu sektorea edo ostalaritzako jarduera derrigorrezko itxi behar izateak eragin izana, martxoaren 465/2020 17 EDko 10. artikulua aldatzen duen martxoaren 463/2020 14 EDak dioena betetzeko eta ondorengo luzapenengatik (COVID-19 eragindako osasun-krisia kudeatzeko alarma-egoera deklaratzeko duena) .
2. Alarma-egoera baino lehen ekonomia-jardueren gaineko zergan edo dagokion erregistroan alta emanda egotea eta alarma-egoeran baja eman ez izana. Hala ere, eragiten dieten alarma-egoerari dagozkion neurriak kendu ondoren, establezimendua zabaldu eta gutxienez lau hilabete geroagora arte jarraitu beharko dute altan emanda.
3. 10 langile baino gutxiago izatea.
4. Euren jarduera ekonomikoa garatzen duten lokala jendeari arreta egiten dion lokala izatea eta Bermeon egotea.
5. Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea, eta Bermeoko Udalarekin zorrik ez izatea.
6. Diru-laguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen administratiborik edo penalik ez izatea, ezta horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik ere, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarriko martxo-



ren 30eko 3/2007 Lege Organikoaren arabera sexuaren ziozko bereizkeria egiteagatik gertatutakoak barne.

7. Diru-laguntzen onuradun izateari dagokionez, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 artikuluan aurreikusitako gainerako egoeretan ez egotea.

Ezingo dira onuradun izan ostalaritzako edo zerbitzuetako saltoki edo establezimendu berean senide laguntzaile gisa lan egiten duten langile autonomoak.

Merkataritza-sozietateen kasuan, laguntza hau bakarrik jaso ahal izango dute zerbitzua ematen den lokalean, txikizkako komertzioan edo ostalaritzako lokalean bazkidea edo bazkideak direnean establezimenduan jarduera zuzenean gauzatzen dutenak.

Edonola ere, establezimenduko diru-laguntza bakarra emango da, bertan zerbitzua eskaintzen duten autonomoen kalterik gabe, ondasun-erkidego, sozietate zibil edo merkataritza-sozietate ustezkoak barne.

6. Aurkeztu beharreko dokumentazioa

Eskatutako dokumentazioa Bermeoko Udalaren webgunean egongo da eskuragarri, eta honako hau izango da:

1. Eskaera ereduaren araberrako erantzukizunpeko adierazpena.
 - Eskatzaileak ez duela azaroaren 17ko 38/2003 Legean eta, zehazki, Legeren 13. artikuluan 2. eta 3. zenbakietan eta 34. artikuluan 5. zenbakian ezarritako debekurik onuradun izateko eta ordainketa jasotzeko
 - Diru-laguntzen onuradun izateko, ez egotea diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorraren 13.2 artikuluan aurreikusitako gainerako egoeretan.
2. Ezarritako ereduaren araberrako diru-laguntza eskaera.
3. Eskatzailearen NANaren kopia.
4. Diruz lagundu daitekeen gastua egiaztatzen duen agiria.
5. Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan (EJZ) izandako alten eta bajen ziurtagiri historikoa.
6. Jarduera uzteagatiko ezohiko laguntzaren ebazpena, hala eskatu bada.
7. Kotizazio-oinarrien eta Gizarte Segurantzaren sartutako kuoten txostena edo autonomoen araubidearen edo dagokion araubidearen 2020ko urtarrileko eta otsaileko ordainagiria ordaindu izanaren ziurtagiria.
8. Gizarte Segurantzarekiko eta Foru Ogasunarekiko ordainketetan egunean egotearen ziurtagiria.
9. Ondasun- erkidegoa eratu izanaren egiaztatzea, sozietate zibila hala badagokio.
10. Eratze-eskiriturak eta, hala badagokio, merkataritza-sozietatea ordezkatzeko duen pertsonaren indarrean dauden ahalordeak.
11. Banku agiria edo antzekoa, diru-laguntza ordaintzeko kontu korrontearen zenbakia eta titulartasuna egiaztatzen dituenak. Aurretik aipatutako edozein agirio onartuko da, edo halakorik aurkeztu ezean, Hartzekodun Fitxa erantsia agiria.

7. Eskakizunak aurkezteko epeak

Eskaerak aurkezteko epea, deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik hasita, hamar egun baliodunekoa izango da.

Oro har, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta lege hori garatzen duen Erregelamenduko baldintzak bete beharko dituzte onuradunek, eta, bereziki, administrazio publikoekiko ordainketak egunean izatearena.

Eskaerak honako moduren baten aurkeztu beharko dira:

- Aurrez aurre Bermeoko Udaleko erregistro orokorrean, Berhaz bulegoa, Ertzilla kalea 6-8. (48370-Bermeo), honako ordutegi eta moduan: Bermeoko Udalaren webgunean edo 946 179 100 telefonoan kontsultatu.



— Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 39/2015 Legeko 16.4 artikuluan aurreikusitako edozein modutan.

Enpresek nahiz interesdunek eskabidea aurkezteak, oinarri hauek onartzen dituztela esan nahiko du.

Eskaerak udalaren erregistro orokorrean sartzen diren hurrenkeran ebatziko dira; be-tiere oinarrietan eskatutako gutxieneko dokumentazioa eransten bada. Bestela, sarrera data moduan hartuko da akatsa zuzentzeko epean eskatutako dokumentazioa aurkeztu denekoa.

Akatsak zuzentzea

Diru-laguntzetarako eskabideek ez badituzte oinarri hauetan xedatutako baldintzak betetzen, edo bertan eskaturiko agiririk eransten ez bada, 10 eguneko epea emango zaie interesdunei akats eta okerrak zuzendu edo falta diren beharrezko agiriak ekar ditzaten. Halaber, ohartaraziko zaie, hala egin ezean eskaria bertan behera utzita jotzat joko dela eta besterik gabe artxibatuko dela.

8. Laguntzen izapidetzea, proposamena eta ebazpena

Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 22.1 artikuluan eta horrekin bat datozenetan ezarritakoaren arabera egingo da.

Laguntzak emateko prozedura eskabideak aurkezteko epea ireki ondoren hasiko da.

Behargintzako zuzendariari/teknikariari dagokio garaiz eta behar bezala bideratutako eskabideen balorazioaren eta azterketaren proposamena egitea eta bai akatsak zuzentzeko izapidea egitea ere, baldin eta akatsik badago.

Proposamen txostena egin ondoren, Tokiko Gobernu Batzarra izango da ebazteko organo eskuduna, eta laguntza hauetarako diru-laguntzak emateko eskumena berreskuratuko du.

Prozeduraren ebazpena banan-banan jakinaraziko zaie interesdunei, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 41. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Banakako errekerimenduak interesdunak eskaera orrian nahitaez adierazi beharko duen posta elektronikoz egingo dira.

Espedientearen izapidetze, ebazpen eta jakinarazpen epea gehienez 6 hilabetekoa izango da.

Administrazio-bideari amaiera emango dio, eta horren aurka aukerako berrazter-tze errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio, ebazpena eman duen organoari, hilabeteko epean, edo bestela zuzenean, administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, justifikazio hori arautzen duen legean aurreikusitako moduan eta epeetan.

Emandako diru-laguntzaren ordainketa bankuko transferentziaz egingo da, onuradunak adierazitako kontu korrontean.

9. Onuradunen betebeharrak

Onuradunen betebeharrak hurrengo hauek dira:

1. Udalaren egiaztatze ekintzen mende jartzea, baita bertako Kontu- hartzaitza Nagusiari dagozkion finantza-kontrolerako ekintzen eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren arauetan aurreikusitako mende ere.
2. Diru-laguntza emateko orduan kontuan izandako edozein inguruabar objektibo nahiz subjektibo aldatuz gero, udalari jakinaraztea.
3. Zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekikoetan egunean daudela egiaztatzea.
4. Laguntza eskaera ulertu eta ebaluatzeko beharrezkotzat jotzen den informazio edota doklumentazio osagarri guztia ematea udalari, Bermeoko Udalaren Erregistro Orokorean aurkeztuta edo Administrazio Publikoen Administrazio Proze-



dura Erkidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako edozein bide erabilia.

Dokumentuak ez badira aurkezten aurreikusitako epeetan, emandako diru-laguntza osorik itzuli beharko da. Beraz, artikulua honetan aurreikusitako aurkezpen epeak igaro eta oraindik ez bada aurkeztu, dagokion prozedurari ekingo zaio, eta jasotako zenbatekoak itzultzeko betebeharra egongo da, eta haren berandutze interes legalak edota ordaindu barik dauden kopuruak jasotzeko eskubidea galduko da.

10. Beste laguntza edo diru- laguntza batzuekin konkurrentzia

Laguntza-lerro hau bateragarria izango da beste administrazio publiko batzuk abian jar ditzaketan laguntzekin, baina laguntza guztien baturak ezin izango du gainditu alar-maren egoeraren adierazpenak sortutako galeren %100.

11. Administrazioak aurkeztutako agiriak berrikusteko eta aztertze duen es-kubidea

Bermeoko Udalak eskubidea du diru-laguntzaren onuradunak zinpeko adierazpe-nean jasotzen dituen datuak benetakoak direla egiaztatzeko. Horretarako, Bermeoko Udalak prozeduraren edozein unetan dokumentazio osagarria eskatu ahal izango du. Onuradunek ez balute aurkeztuko eskatutako dokumentazioa, prozesutik kanpo geratu-ko lirake eta jasotako diru-laguntza bueltatu beharko lukete, edonola ere.

12. Diru -laguntzen justifikazioa

Onuradunek justifikazio kontua aurkeztu beharko dute, eta alarma egoerari dagoz-kion neurriak kendu ondoren, establezimendua ireki eta bost hilabeteko epean, honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

- Enpresaren edo enpresaburuen ekonomia jardueren gaineko zergaren edo lan bi-zitzaren alten eta baje ziurtagiri historikoa aurkeztu beharko da. Bajarik ez zaiela eman frogatzeko, ekonomia jardueren gaineko zergan alta emanda jarraitu behar-ko dute, alarma egoerako neurriak kendu ondoren, gutxienez establezimendua berriro ireki eta lau hilabetera. Ziurtagiri horrek balioko du frogatzeko ez dela eman bajarik.
- Jardueraren gastu eta inbertsioen zerrenda sailkatua, hartzekoduna eta dokumen-tua, zenbatekoa, jaulkipen data eta hala badagokio, ordainketa data zehaztuta, emandako diru-laguntzaren gutxieneko zenbatekoarekin.
- Merkaritzako trafiko juridikoan pareko froga balioa duten administrazio eraginkor-tasuna duten fakturak edo dokumentuak, aurreko paragrafoan aipatutako zerren-dan jasoak, eta ordainketaren egiaztagiririk.
- Zinpeko aitortpena, diruz lagundutako jarduera finantzatuko duten beste diru sarre-ra edo diru-laguntza batzuen zerrenda zehatza jasotzen duena, zenbatekoa eta jatorria adierazita, eta gainfinantziatorik ez dela egon adierazita.

13. Diru-laguntzaren itzulera

1. Deialdi honetan zehaztutako betebeharrak betetzen ez badira, Zerbitzu kudeatzai-leak (Behargintza) ofizioz hasiko du administrazio espediente, eta interesdunari entzun ondoren, justifikatu gabeko funtsak itzultzeko prozedura hastea proposatuko dio diru-la-guntza eman zuen organoari, dagozkion berandutze interesen likidazioarekin batera.

2. Jasotako zenbatekoa itzultzeko, hala dagokionean, Diru laguntzei buruzko Lege Orokorraren II. tituluaren eta hura garatzen duen Diru-Laguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamenduaren III. Tituluaren xedatutakoa bete beharko da.

3. Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 36. artikuluan jasotako emakida-ebaz-pena baliogabetzeko arrazoiekin batera, jasotako zenbatekoak osorik edo zati batean itzuli beharko dira, bai eta diru-laguntza ordaintzen den egunetik itzulketa bidezkoa dela erabakitzen den arte dagokion berandutze interesa eskatu ere, diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 37. artikuluan oro har aurreikusitako kasuetan. Onuradunak ez badu



betetzen enpresa jarduerari eusteko betebeharra deialdiaren 9. puntuan ezarritako lau hilabeteetan, itzuli egin beharko du kontzeptu horrengatik diru-laguntzaren zenbatekoa.

4. Itzulketa prozedura abiarazteaz gain, diru-laguntza emateko ezarritako betebeharrak ez badira betetzen, onuradunak organo kudeatzaileari jakinarazi ahal izango dio, sarrera erregistroaren bidez, eta jasotako zenbatekoa borondatez itzuli. Horretarako, zerbitzu kudeatzailearekin harremanetan jarri beharko du, egin beharreko izapideak egiteko. Era berean, atzerapen interesak kalkulatuko dira, harik eta haiek benetan itzuli arte.

14. Aplikatutako arautegia

Oinarri arautzaileetan xedatutakoaz gain, laguntza hauek Diru-laguntzei buruzko araroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren eta lege hori garatzen duen erregelamenduaren arabera arautuko dira, eta, osagarri gisa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen eta aplikagarria izan daitekeen beste edozein arau xedapenen arabera.

15. Izaera pertsonaleko datuen tratamendua

Datu hauek udalaren informazio sisteman sartuko dira. Tramite honen kudeaketarako baino ez dira erabiliko, eta beste herri-administrazioei/administrazio publikoei utzi edo jakinarazi ahal izango zaizkie 2016ko apirilaren 27ko Erregelamenduaren, 2016/679 (EB) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituenaren arabera. Interesdunek datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezerezteko, tratamendua mugatzeko eta aurka egiteko eskubidea izango dute Bermeoko Udalaren Arreta Zerbitzuan.

16. Emandako diru-laguntzen publizitatea

Deialdia arautzen duten oinarri horiek eta diru-laguntza emateko erabakia Diru-laguntzen Oinarri Nazionalean argitaratu beharko dira, sektore publikoa arrazionalizatzeari eta administrazioa erreformatzeko beste neurri batzuei buruzko irailaren 16ko 15/2014 Legeak aldatu zuen Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 20. artikularekin bat etorriz.

Bermeon, 2020ko uztailaren 24an. — Alkatea, Aritz Abaroa Cantuariense

**HIRUGARRENEN ALTA AGIRIA
CERTIFICADO DE ALTA DE TERCERA PERSONA INTERESADA**

Izen-abizenak / Nombre y apellidos	NAN zk / DNI
Noren izenean En representación de	Enpresa edo erakundearen izena Nombre de la empresa o entidad
Izen komertziala Nombre comercial	IFZ/IFK NIF/CIF

ESKATZEN DU DIRU LAGUNTZA HURRENGO KONTU ZENBAKIAN ORDAINDU DADILA
SOLICITA QUE SE ABONE LA AYUDA ECONÓMICA EN EL SIGUIENTE NÚMERO DE CUENTA

Kontu titularraren izen-abizenak / Nombre y apellidos del Titular de la Cuenta
Banketxea edo kutxa / Banco o caja
Sukurtsala / Sucursal

IBANa		Erakunde kod. Cod. Entidad	Sukurtsal kod. Cod. Sucursal	K.Z. D.C.	Kontu korrante edo aurrezki kontu zk. Número de cuenta corriente/ahorro:
E	S				

Behean sinatzen duenak bere gain hartuko du jasotako datuen egiazkotasunaren erantzukizun osoa.
El/la abajo firmante se hace plenamente responsable de la veracidad de los datos consignados.

Bermeon, 20...(e)koaren(e)(a)n
En Bermeo, a ... de de 20...

Legezko ordezkariaren sinadura eta enpresa edo erakundearen zigilua
Firma del/la representante legal y sello de la empresa o entidad

Banketxearen sinadura eta zigilua
Firma y sello de la entidad Bancaria



COVID-19AREN ALARMA-EGOEREA DALA-ETA, TXIKIKAZKO MERKATARITZARAKO ETA OSTALARITZARAKO DIRU-LAGUNTZAK EMOTeko ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA ETA ESKAERA-ORRIA SOLICITUD Y DECLARACIÓN RESPONSABLE PARA LA CONCESIÓN DE AYUDAS ECONÓMICAS DESTINADAS AL COMERCIO MINORISTA Y LA HOSTELERÍA, COMO CONSECUENCIA DE LA DECLARACIÓN DEL ESTADO DE ALARMA POR LA IRRUPCIÓN DEL COVID-19

(IN-G 264/02-20)

Eskatzailearen datuak / Datos del solicitante

Esp. Zk. / N.º Exp.:

Izen-abizenak / Nombre y apellidos:

Helbidea / Dirección:

PK / CP:

Herria / Municipio:

E(H)NA/NAN / DNI:

Tel.:

E-posta:.....

Jakinarazpena / Notificación: Paperean/en papel Egoitza elektronikoan / en sede electrónica

Ordezkestariaren datuak / Datos del representante

Izen-abizenak / Nombre y apellidos:

E(H)NA/NAN / DNI:

Helbidea/ Dirección

PK / CP:

Herria / Municipio:

Tel:

E-posta:

* Nahitaezkoa izango da, jagokon ahalordea, ziurtagiria edo IN-108 inprimakia behar bezala beteta eranstea inprimaki honi.

* Será imprescindible adjuntar a este impreso el poder correspondiente, certificado o impreso IN-108 debidamente cumplimentado.

JARDUERAREAGAZ LOTUTAKO LOKALAREN DATUAK DATOS DEL LOCAL AFECTO A LA ACTIVIDAD

Helbidea / Dirección:

EJZ epigrafea / Epigrafe IAE:

BANKUKO DATUAK / DATOS BANCARIOS

Table with 5 columns: IBANa, Erakundearen kodea, Sukurtsalaren kodea, KZ DC, Kontu korrante/aurrezki kontu zenbakia. Includes a grid for entering the numbers.

.....

.....

**ESKATZAILEAREN ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA
DECLARACIÓN RESPONSABLE DE LA PERSONA SOLICITANTE**

- Bermeoko Udaleri eskatutako informazio eta agiri guztiak emongo deusadaz, laguntza honetako baldintzak behar bezala beteten dirala egiaztatzeko.
Facilitará a Bermeoko Udala cuanta información y documentación me sea solicitada al objeto de verificar la correcta aplicación de las condiciones propias de la ayuda.
- Adierazpen-egilea izanda, baimena emoten dot laguntzak emoteko prozedura honetatik erotritako jakinarazpen guztiak eskaera honetan adierazitako posta elektronikoaren bidez egiteko.
Que la persona declarante consiente que todas las notificaciones derivadas del presente procedimiento de concesión de ayudas sean realizadas a través de correo electrónico indicado en esta solicitud.
- Adierazpen-egilea nazan honek adierazten dot zigor- edo administrazio-erloan diru laguntza publikoak lortzeko aukera galtzeko zigorrik ez jaso izana, ez eta horretarako ezgaitzen dauen legezko debekurik be, emakumeen eta gizonen bardintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera edo emakumeen eta gizonen benetako bardintasunerako martxoaren 30eko 3/2007 Lege Organikoaren arabera sexu-diskriminazioarengaitik gertatutakoak barne.
Que la persona declarante no se encuentra sancionada penal ni administrativamente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, ni estar incurso en prohibición legal alguna que la inhabilite para ello, con inclusión de las que se hayan producido por incurrir en discriminación de sexo, en virtud de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, de Igualdad de Mujeres y Hombres así como de la igualdad efectiva de mujeres y hombres, en virtud de la Ley 3/2007, de 30 de marzo.
- Adierazpena egiten dodan honek/Ordezkatzen dodan enpresek konpromisoa hartzen dau jardurea barriro hasteko alarma egoerea amaitu eta hilabeteko epean edo eskumena daukan organoak jardurea osotasunean garatzeko baimena emoten dauenetik hilabeteko epean, eta gitxienez 6 hilabetez jarraitzeko.
Que la persona declarante/Que la empresa que representa se compromete al reinicio de la actividad de la misma en el plazo de un mes a partir de la finalización del estado de alarma o un mes desde que se autorice por el órgano competente el completo desarrollo de la actividad y continuar con la actividad al menos durante 6 meses.
- Adierazpen-egileak/Enpresek hilabeteko epean jakinaraztea diruz lagundutako jardura finantzatu daben bestelako sarrera edo diru-laguntzen zerranda zehaztua, zenbatekoa eta nork emon dauen adierazita.
Que la persona declarante/Que la empresa facilite en el plazo de un mes una relación detallada de otros ingresos o subvenciones que hayan financiado la actividad subvencionada con indicación del importe y su procedencia.
- Adierazpen-egilea nazan honek adierazten dot laguntza-lerro hau bateragarria izango dala beste administrazio publiko batzuk abian jarri ahal dabean laguntzakaz, baina laguntza guztien baturak ezin izango dau gaintitu alarmaren egoeraren adierazpenak sortutako galeren %100.
Que la persona declarante manifiesta que esta línea de ayuda va a ser compatible con otras ayudas que se han puesto en marcha a través de otras administraciones públicas, pero la suma de todas las ayudas no podrá superar la pérdida del 100% que ha supuesto la manifestación de la situación de alarma.
- Adierazpen-egilea nazan honek adierazten dot diru laguntzen onuradun izateko, ez nagoala Diru laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 artikuluan aurreikusitako gainerako egoeretan.
Que la persona declarante no se encuentra incurso en ninguna de las situaciones previstas del artículo 13.2 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, general de Subvenciones.

**ERANTSITAKO AGIRIAK / DOCUMENTACIÓN ADJUNTA**

- Eskatzailearen E(H)NA/NAN/AIZ. / DNI-NIE persona solicitante.
- EJZren alten eta bajen historikoa. / Certificado histórico de altas y bajas en el IAE.
- Gastuen dokumentazioa. / Documentación de gastos.
- Hartzekodunaren dokumentazioa. / Documentación del acreedor/a.
- Jarduerea ixteagaitik ez ohiko laguntzearen ebazpena, eskatu bada.
Resolución del Subsidio Extraordinario por cese de actividad, en caso de haberlo solicitado.
- Autonomoen araubidearen 2020ko urtarrileko eta otsaileko ordainagiria ordaindu izanaren ziurtagiria.
Justificante de pago del recibo correspondiente al régimen de autónomos del mes de enero y febrero de 2020.
- Gizarte Segurantzazagako eta Foru Ogasunazagako ordainketetan egunean egotearen ziurtagiria.
Certificado de estar al corriente de pagos con la Seguridad Social y Hacienda Foral.
- Ondasun-erkidegoa eratu izanaren egiaztagiria; soziedade zibila halan bajagoko.
Documento acreditativo de la constitución de la Comunidad de Bienes, Sociedad Civil, en su caso.
- Eratze-eskriurak eta, halan bajagoko, merkataritza-soziedatea ordezkaten dauen pertsonaren ahalordeak (indarrean dagozanak)
Escrituras de constitución y poderes de la persona que actúe en representación de la misma en vigor de la sociedad mercantil, en su caso.

Bermeon, 20...(e)koaren(e)(a)n
En Bermeo, a ... de de 20...

Adierazpen-egilearen sinadura /Firma de la persona declarante

Bermeoko Udaleko Alkate-Udalburua
Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Bermeo

- Jakinarazpena gazteleraz jaso nahi dot. Ezer adierazi ezean, Udalak erantzuna euskeraz emongo deutsu.
Quiero que se me notifique en castellano. Si no se indica nada, la respuesta del Ayuntamiento se remitirá en euskera.

Datuak Babesteko 3/2018ko Lege Organikoa (DBLO) eta 2016/679 Datuak Babesteko Erregelamendu Europarrari dagokion informazioa (DBEO). Arduraduna: Bermeoko Udala, antolakuntza@bermeo.eus *Xedea*: sarreren eta urteeren erregistroaren kontrola, eta goian jasotako eskaerearen tramitazioa. Legitimazioa: botere publikoen jardunak agindutako egitekoa betetea. *Hartzaileak*: ez jake daturik emongo hirugarrenei, legezko betebeharra izan ezean. *Eskubideak*: datuetara iristeko, datuak zuzentzeko, datuak ezerezteko, tratamendua mugatzeko eta datuen aurka egiteko eskubideak *Informazio gehigarria*: udalaren webgunean: <http://www.bermeo.eus/datuenbabesa.html>

Información correspondiente a la Ley Orgánica 3/2018 de Protección de Datos (LOPD) y el Reglamento 679/2016 del Parlamento Europeo de Protección de Datos (RPEPD). Responsable: Bermeoko Udala, antolakuntza@bermeo.eus. *Objeto*: gestión de registro y tramitación de la solicitud indicada. *Legitimación*: cumplimiento de la misión encomendada por la actuación de los poderes públicos. Destinatarios/as: no se facilitarán datos a terceras personas, excepto que exista obligación legal. *Derechos*: derechos de acceso, rectificación, cancelación, limitación del tratamiento y oposición al tratamiento, según información adicional; *Información adicional*: en la página web municipal: <http://www.bermeo.eus/datuenbabesa.html>